


## Euskadiko gazteek 7,2ko puntuazioa ematen diote norberaren egungo egoerari

**20 urtera artekoak dira norberaren egoerari puntuaziorik onena eman diotenak**


Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek 7,2ko puntuazioa ematen diote norberaren egungo egoerari, Otik 10era doan eskalan.

20 urtera arteko gazteek ematen diote norberaren egoerari puntuaziorik onena (7,9, batez beste), eta puntuazio hori behera doa adinean gora egin ahala.


Ikasten eta lanean dabilten gazteek puntuazio positiboagoak ematen dituzte (7,5 eta 7,3, hurrenez hurren), langabezian daudenek baino (6,0).



Puntuaziook interpretatzeko garaian, aintzat hartu behar da 25 urtetik beherakoen artean, bai eta ikasten edo lanean ari direnen artean ere, gehiago direla duela bost urte baino egoera hobean daudela uste dutenak, egoera okerragoan daudela diotenak baino. Hain zuzen ere, epe horretan haurtzaro/nerabezarotik gaztarora igaro dira eta, horrenbestez, askatasun eta independentzia pertsonal handiagoak eskuratu dituzte irteteko, unibertsitatera joan dira, enplegua lortu dute... 25 eta 29 urte bitartekoen eta langabezian daudenen kolektiboetan, ordea, gehiago dira egoera pertsonala okertu dela uste dutenak hobetu dela diotenak baino, ikasketasasoa amaitu eta gero, ez dutelako enplegu-merkatuan sartzea lortu, enplegua galdu dutelako...



Gazteek egungo egoera pertsonalari buruz ematen duten balorazioa altuxeagoa da 30 urtekoena eta hortik gorakoena baino (6,8, OtiK 10era doan eskalan). Ez da harritzekoa, izan ere, 29 urtetik gorakoen erdiek baino gehiagok (% 55ek) uste dute euren egoera pertsonalak okerrera egin duela azken 5 urteotan.



Datuok Gazteen Euskal Behatokiak eta Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak elkarlanean egindako [\*Aurrera Begira / Mirando al futuro\*](#), azterlanetik atera dira. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 30 urteko eta hortik gorakoen lagin adierazgarriari egindako inkesta telefonikoa da azterlanaren abiapuntua (inkestatutako gazteen kopurua: 1516; inkestatutako 30 urtekoen eta hortik gorakoen kopurua: 943). Inkestak 2013ko azaro-abenduan egin ziren, eta azterlana 2014ko otsailean plazaratu da.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

